

POLIZAREN ESTALDURAREN LABURPENA

ERRESERBAK BERTAN BEHERA UZTEAGATIKO GASTUEN ALDI BATERAKO ASEURUA

Datozen lerroetan azaldutako gertakariak gastuen itzulera ekarriko lukete, baldin eta gertakariok erreserba gauzatu eta gero ematen badira, eta Asegurudunari zuzenean eragiten badiote:

1. bermea: Gaixotasun larria, istripu larria edo heriotza, ustekabeko ebakuntza kirurgikoa, konplikazioak haurdunaldian edo berezko abortua, edo asegurdunaren beraren, senide baten, lehen eta bigarren graduko ondorengoan edo erreserban izena emandako laguntzailearen organo-transplantea, edo asegurdunari eragiten dion berrogeialdi medikoa.

- Asegurduna, bere ezkonlaguna, lehen edo bigarren graduko aurreko edo ondorengoak, gurasoak, seme-alabak, anai-arrebak, aitona-amonak, bilobak, koinatuak, suhiak, errainak, aita-amaginarrebak edo izatezko bikoteak.
- Erreserba berean izena emandako asegurdunaren laguna.

Aseguruaren estaldurari dagokionez, hona definizioak:

Asegurdunaren gaixotasun larria: osasun-alterazioa, mediku profesional batek egiaztatua; gaixoa ohean egotera bultzatu behar du, eta edozein jarduera, izan profesionala, izan pribatua, etetera behartu.

Asegurdunaren istripu larria: edozein tupusteko eta kanpoko kausa biolentok eragindako zeinahi lesio korporal, kolpatuak nahi gabe emandakoa. Ondorioek ohiko bizilekutik normal etortzea eragotzi behar diote.

Gaixotasunak edo istripuak asegurduna ez den aipatutako pertsonaren bati eragiten dionean, hau larria izango da ospitaleratzea edo berehalako heriotzaren arriskua dakarrenean.

Erreserba ezingo da gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat edo epidemia baten kausaz bertan behera utzi, edozein dela ere, COVID-19aren infekzio zuzena barne. Aginte zibilak edo militarrek murrizketak edo galarazpenak dekretatzen baditu ere, aipatutako gaixotasunak eta epidemiak, COVID-19a barne, direla bide, ezingo da erreserba baliozabatu.

2. bermea: Lapurreta, suteak edo beste antzeko kausengatiko kalte larriak, Asegurdunaren bizitokian.

- Asegurdunaren ohiko bizitokian, edota bigarren bizitokian.
- Asegurdunak lanbide liberal bat burutzeko duen areto profesionalean; posible da zuzeneko ustiatzailea ere izatea (gerentea).

Eta ezinbestez Asegurdunaren presentzia behar dutenak.

3. bermea: Asegurdunaren aldi baterako kaleratzea, aseguruaren hasieran ahozko edo idatzizko komunikaziorik ez balego.

4. bermea: Asegurudunak justizia-auzitegi bateko epaimahaikide edo lekuko izateko deia jasotzen badu, edo hauteskunde-mahaikide izatekoa.

5. bermea: Aire-, lur- edo ontzi-pirateria, zeinak Asegurudunari bidaiaren hasiera edo jarraipena eragozten dion. **Ekintza terrorista guztiak salbuesten dira.**

6. bermea: Dokumentazioaren edo ekipajearen lapurreta, zeinagatik Asegurudunak ezin duen bidaia hasi edo jarraitu.

7. bermea: Bidaia segurtasunez hasia eragozten duen matxura, Asegurudunaren edo bere ezkonlagunaren ibilgailuan.

Estaldura mugatua da: ibilgailuaren konponketagatiko faktura 600 € baino garestiagoa bada, edota konponketarako 8 ordu baino gehiago behar badira, peritu batek egiaztatuta.

8. bermea: Asegurudunak dokumentu ofizialak aurkeztu eta sinatzeko deialdia, horren berri bidaiaren erreserbaren ostean izan bada eta idatziz jakinarazi izanez gero.

Frankizia

Ezbeharraren % 10i dagokion frankizia ezarriko da ezbehar bakoitzagatiko; 70 euro gutxienez.

Poliza honek 30 eguneko gabealdia du. Gainera, ez die estaldurarik ematen 70 urtetik gorako pertsoneri.

Poliza honek ez du erreserbaren baliogabetzea edo etenaldia estaltzen, horretarako kausa maskoten gaixotasuna edo heriotza bada.

Eskuorri hau orientagarria da erabat, eta inolaz ezin da kontratatutako bermeen eta hauen mugen definitzailatzat hartu.